# El Gobierno Vasco inaugura ALTXOR, un servicio pionero de orientación para personas mayores de 60 años

**Bilbao, 3 de octubre de 2025.**
El Gobierno Vasco ha inaugurado este viernes ALTXOR, un nuevo servicio público de orientación dirigido a las personas mayores que desean seguir participando activamente en la vida social y comunitaria tras la jubilación. La iniciativa, impulsada por el Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, abre sus puertas de forma simultánea en Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz, y cuenta con un ecosistema digital de atención remota accesible desde cualquier punto de Euskadi.

ALTXOR nace con una visión innovadora: ofrecer un espacio de escucha, orientación y conexión para las personas mayores de hoy, diversas, activas y con voluntad de mantenerse implicadas en su entorno. A través de una atención personalizada —presencial y online—, el servicio ayuda a identificar necesidades, acceder a recursos disponibles y construir nuevos proyectos vitales desde el empoderamiento y la autonomía personal.

Durante la presentación, la consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, Nerea Melgosa, subrayó la relevancia del nuevo modelo de acompañamiento que promueve el Gobierno Vasco:

> "Tener una vida plena cuando nos hacemos mayores es un derecho, y si esa vida se hace participando en la comunidad es un verdadero tesoro. ALTXOR refleja esa visión: un servicio que apoya, acompaña y reconoce el valor de las trayectorias vitales de las personas mayores".

Melgosa recordó además que el envejecimiento activo constituye una de las principales estrategias del Ejecutivo vasco:

> "ALTXOR es una herramienta que va a dar respuesta a miles de personas que, tras finalizar su etapa laboral remunerada, quieren seguir aportando a la sociedad pero no saben exactamente cómo. El

colectivo de las personas senior no es un tesoro que haya que guardar en un museo, es la savia activa que fluye por las raíces, el tronco y las ramas de nuestra sociedad".

Según datos del Eustat, en Euskadi residen actualmente 528.954 personas mayores de 65 años, lo que representa el 24 % de la población, frente al 19 % registrado en 2010. El servicio está abierto también a personas mayores de 60 años, anticipando una nueva etapa en la que pueden surgir inquietudes, proyectos e ilusiones vinculadas a la jubilación.

ALTXOR ofrece una red de atención integral, humana y conectada, diseñada para llegar tanto a personas que viven en entornos urbanos como rurales. Cada oficina ofrece orientación, acompañamiento y acceso a recursos sociales, culturales y de salud. Además, su plataforma digital permite realizar videollamadas, participar en actividades, compartir contenidos de interés y recibir apoyo desde casa, garantizando un trato cercano y respetuoso para todos los niveles de autonomía y capacidades digitales.

El proyecto ha sido construido en colaboración con entidades sociales, profesionales del ámbito gerontológico y las propias personas mayores, así como con los ayuntamientos de las tres capitales vascas, que participan activamente en su impulso y consolidación territorial. Tras su apertura, ALTXOR prevé seguir creciendo, incorporando nuevas formas de acompañamiento adaptadas a las realidades locales y a los cambios que trae consigo la nueva longevidad.

===

# Eusko Jaurlaritzak ALTXOR aurkeztu du, 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako orientazio-zerbitzu aitzindaria

**Bilbo, 2025eko urriaren 3a.**
Eusko Jaurlaritzak ostiral honetan inauguratu du ALTXOR, erretiroaren ondoren gizarte- eta komunitate-bizitzan aktiboki parte hartzen jarraitu nahi duten adinekoei zuzendutako orientazio-zerbitzu publikoa. Ekimen hau Ongizate,

Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak bultzatu du, eta aldi berean ireki ditu bere lehen bulegoak Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Horrez gain, arreta digitaleko ekosistema bat du, Euskadi osotik eskuragarri.

ALTXOR zerbitzu berritzaile batekin jaio da: entzuteko, orientatzeko eta konektatzeko gune bat eskaintzen du gaur egungo adinekoentzat —anitzak, aktiboak eta beren ingurunean parte hartzen jarraitzeko gogoz dauden pertsonentzat—. Arreta pertsonalizatuaren bidez, bai aurrez aurre bai online, zerbitzuak pertsonen beharrei erantzuten die, inguruko baliabideetara sartzen laguntzen du eta bizitza-proiektu berriak eraikitzen laguntzen du, autonomia eta ahalduntzea sustatuz.

Aurkezpen-ekitaldian, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuak, Nerea Melgosak, azpimarratu du Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen laguntza-eredu berriaren garrantzia:

> “Bizitza bete-betea izatea eskubide bat da, eta bizitza hori komunitatean parte hartuz egiten bada, altxor bat da. ALTXOR zerbitzuak ikuspegi hori islatzen du: adineko pertsonen ibilbide-bizitzak babesten, laguntzen eta balioesten dituen zerbitzua da”.

Melgosak, halaber, gogorarazi du zahartze aktiboa Eusko Jaurlaritzaren estrategietako bat dela:

> “ALTXOR tresna bat da, lan-bizitza ordainduaren etapa amaitu ondoren gizarteari ekarpena egiten jarraitu nahi duten milaka pertsonari erantzuteko. Adinekoen kolektiboa ez da museoan gorde beharreko altxorra; gure gizartearen sustrai, enbor eta adarretan zehar dabilen izerdi bizia da, bizia ematen jarraitzen duena, familian, auzoko elkartean, enpresan edo unibertsitatean”.

Eustaten datuen arabera, gaur egun Euskadin 528.954 pertsona daude 65 urtetik gora, biztanleriaren %24; 2010ean, berriz, %19 ziren. Zerbitzua 60 urtetik gorako pertsonei ere zuzenduta dago, erretiroaren aurreko urteetan sor daitezkeen zalantzak, ilusioak eta proiektuak lantzeko.

ALTXORrek arreta-sare integrala, gizatiarra eta konektatua eskaintzen du, bai ingurune urbanoetan bai landa-eremuetan bizi diren pertsonei egokitutakoa. Bulego bakoitzak orientazioa, laguntza eta baliabide sozial, kultural eta

osasungarrien inguruko informazioa eskaintzen du. Plataforma digitalari esker, bideodeiak egin daitezke, jardueretan parte hartu, intereseko edukiak partekatu eta etxetik bertatik laguntza jaso, betiere gertutasuna eta errespetua bermatuz, autonomia-maila eta gaitasun digital ezberdinetara egokituz.

Proiektua eragile sozialekin, esparru gerontologikoko profesionalekin eta adineko pertsona berberekin lankidetzan eraiki da, baita Euskal hiriburuetako udalekin ere, zerbitzuaren garapenean eta lurraldean txertatzean aktiboki parte hartzen dutenak. Irekiera honen ondoren, ALTXORrek hazten jarraituko du, tokiko errealitateetara eta bizi-luzeraren erronka berrietara egokitutako laguntza-modu berriak txertatuz.

**Imágenes:**




Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES, CONSUMO Y AGENDA 2030
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


altxor


altxor
PROYECTOS DE VIDA SENIOR
altxor
Buscamos
gente
inquieta
Aquí no importan los años,
importan las ganas de seguir haciendo
altxor.eus
Conoce la comunidad
de apoyo digital
altxor
PROYECTOS DE VIDA SENIOR
altxor.eus


altxor
Buscamos
gente
inquieta
Aquí no importan los años,
importan las ganas de seguir haciendo
altxor.eus
Conoce la comunidad
de apoyo digital
altxor
NAGUSIEN BIZITZEKO PROIEKTUAK
PROYECTOS DE VIDA SENIOR